



FUNTSEZKO JARDUERAK

JARDUERAK	AZALPENA
<p><u>Joskintza eta diseinua</u></p> 	<p>Jasotako arropa dendara heltzen denean, haren diseinua eta produktu berriaren forma eta edukia pentsatu behar dugu. Horretarako, ditugun oihalen artean zeintzuk erabiliko ditugun erabaki behar dugu eta horren arabera, jantzi berriaren joskintza prozesuarekin hasi. Ekoizpen-prozesu hau aurrera eramateko josteko-makinetaz edota haria eta orratzaz baliatuko gara.</p>
<p><u>Kostu eta sarreren kudeaketa</u></p> 	<p>Lehendabiziko inbertsioaz eta behin bezeroak erosteko prest daudenean egingo ditugun salmenten diru-sarrerak kudeatuko ditu. Era horretan, diru-galerarik ditugun edota etekinak nolakoak izan diren kalkulatuko ditu.</p>
<p><u>Marketing</u></p> 	<p>Publizitate eta merchandising estrategiak guztiz funtsezkoak dira. Horretarako, gure publizitatea bezero potentzial gazteei arreta deitu behar dienez, Instagram stories arrakastatsuetaz baliatuko gara.</p>
<p><u>Bezeroentzako arreta</u></p> 	<p>Bezeroekiko harreman automatizatua eta arreta pertsonala erabiliko ditugu bezeroen eragozpen guztiak ahal diren moduan konpontzeko eta haien galderak edo iradokizunak erantzuteko.</p>

Dendaren antolaketa



Izakinak eta haien balioa momentu guztian kontrolpean izan behar dugu. Era berean, dendaren estruktura edo forma bera antolatu behar dugu bezeroarentzako erakargarriagoa izateko.